

IKASTETXEETAN COVID-19AREN AURREAN OSASUN ETA SEGURTASUN NEURRIEN GIDA

2020ko abendua

CCOO
IRAKASKUNTZA



Aurkibidea

0. **HASI AURRETIK** | 5. Orrial.
1. **1GO. BLOKEA: KUDEAKETA ETA TRAMITAZIOA.**
 - a. EMAN DAITEZKEEN KASUEN KUDEAKETA | 5. Orrial.
 - b. AGERRALDIAK | 6. Orrial.
 - c. BERROGEIALDIA | 6. Orrial.
 - d. BAJAK | 7. Orrial.
2. **2. BLOKEA: ESPOSIZIOAK ETA ARRISKUAK**
 - a. ARRISKU PSIKOSOZIALAK | 8. Orrial.
 - b. AHOTSA ZAINTEA | 9. Orrial.
 - c. LARRUAZALAREN PATOLOGIAK | 10. Orrial.
 - d. COVID-19AREN AURREAN KALTEBERA DIREN PERTSONAK | 10. Orrial.
 - e. HAURDUNALDIA ETA COVID-19A | 11. Orrial.
3. **3. BLOKEA: INSTALAZIOAK ETA MATERIALAK**
 - a. ESPARRUAK: TENPERATURA ETA AIREZTAPENA | 12. Orrial.
 - b. MATERIALAK: MASKARAK, HIDROGELA, ETA PANTAILAK | 13. Orrial.

Hasteko

2020ko maiatzean, CCOOeko Federazioaren Lan Osasuneko eta Ingurumeneko Idazkaritzak dokumentu bat prestatu zuen: *CCOOen proposamena Ikastetxeetako osasun eta segurtasunaren kontuetan. Deseskalada eta 2020-2021eko ikasturtea*¹. Bertan, egoeraren azterketa egin eta, joan den martxoaren konfinamenduaren ostean, ikastetxeetara itzultzean bertaratze seguruari aurre egiteko zenbait proposamen ematen ziren. Ia sei hilabete geroago, eta egungo egoera ebaluatu ondoren, Covid-19 pandemiaren bigarren boladan zehar hezkuntza elkartean eragiten ari diren alderdiak aztertzeko garaia da.

Gida honek, arreta handiagoa sortzen duten ardatz temetikoak jasotzen dira eta gure Idazkaritzara maiz datozkigunak. Gure helburua bikoitza da: denbora honetan zehar hezkuntza elkartean sortutako dudak argitu eta pandemiaren aurrean prebentzio neurrien garapenean oraindik hobetu edo sakondu behar diren alderdiak errebindikatu eta horiek arreta gune egitea.

Testu gisa egituratzen da. Bertan, kasuen tramitazioa eta kudeaketari, patologietarako esposizioei dagozkien gaiak biltzen dira eta hirugarren blokea materialei eta instalazioei dagozkienak.

Eman daitezkeen kasuen kudeaketa

Osasun Ministerioak, hezkuntza eremuan pandeminari buruzko alderdiak zehazten dituzten bi dokumentu argitaratu zuen: *Ikastetxeetan Covid-19 pandemiaren kasuak agertzearen aurrean jokatzeko Gida*² eta *Ikastetxera itzultzeari buruzko galde-erreguak*³. Bietan, kasuak agertzen direnean jokatzeko neurriak zehazten dira.

Osasun eta hezkuntzako eskumenak erkidego autonomoetara eskualdatuta daudenez, lurralde bakoitzak bere jokaera protokoloak garatzen ditu. Aldi berean, kontuan hartu behar da unibertsitateek ere beren protokoloak egiten dituztela. Edozein kasutan, ikastetxe batean kasuren bat agertzen denean, honako urratsak jarraitu beharko dira:

1. Ikastetxeko **Covid-19ren arduradunari** sortutako kasuaren susmoa jakinarazi, jarraibidea koordinatu dezan.
2. Susmagarri den pertsona, horretarako prestatuta dagoen gelan **bakartu**, ongi aireztatua non, maskarak, gelak, paperontzi tapaduna eta leku horretan egon behar diren pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko beharrezkoak diren prebentzio neurri guztiak.
3. Ikasle bat izanez gero, **familiakoei** abisatu jasotzera etor daitezten.
4. Ikastetxeko langilea bada, **prebentzio zerbitzuei**⁴ edo autonomia erkidego bakoitzeko araudiaren arabera dagokion osasun aginteari abisatu.

CCOOek ZERA EXIJITZEN DU:

1. Aipatu dokumentazioan zehazten da bai susmo peko pertsonak bai bere zaintzaileak biek maskara kirurgikoa eraman beharko dutela. Ikerketa ugari agertu dira aerosolek gaixotasuna kutsatzean garrantzi handia dutela eta, horregatik, **CCOOen Federazioak (ardura printzipioa aplikatuz) zera eskatzen dugu: gelan egon behar duten pertsonen FFP2 maskara ematea.**

1 CCOOen proposamena Ikastetxeetako osasun eta segurtasunaren kontuetan. Deseskalada eta 2020-2021eko ikasturtea

<https://fe.ccoo.es/b45a4a831f>

[285bb9a0e5e23b13027357000063.pdf](https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Guia_actuacion_centros_educativos.pdf)

2 *Ikastetxeetan Covid-19 pandemiaren kasuak agertzearen aurrean jokatzeko Gida. 2020ko irailaren 24.*

[https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/](https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/)

[ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Guia_actuacion_centros_educativos.pdf.](https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/)

3 *Ikastetxera itzultzeari buruzko galde-erreguak.* <https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/>

[Preguntas y respuestas sobre la vuelta al cole 11.09.20.pdf.](https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/)

4 *SARS-CoV-2ren esposizioaren aurrean, lan arriskuaren prebentzio zerbitzuetarako jokaera prozedura.* <https://www.mscbs.gob.es/>

2. Zera eskatzen dugu ere: ikastetxeetan eman diren kasu positiboaren zenbaketa eta agintari eskudunek trazabilitatea eta ikastetxean kutsatuak izan dituen harreman estuen zerrenda egitea.

3. Azpimarratu nahi dugu kasuen berri ematea derrigorrezkoa dela eta funtsezkoa dela agintari eskudunek berrogeialdi eta konfinamendurako ezarrita dauden arauak errespetatzen direla zaintzea. Puntu hau nabarmendu nahi dugu, Estatuko zenbait lurraldeetan egoera kezkarriak ematen ari baitira.

AGERRALDIAK

Osasun Ministerioak, *Ikastetxera itzultzeari buruzko galde-erreguak*⁵ dokumentuak agerralditzat zera jotzen du: “elkarren artean harremana izan eta kutsadura aktiboa duten 3 kasu edo gehiago elkartzea”.

Agerraldi baten aurrean ezinbestekoa da osasun agintarien eta ikastetxearen arteko koordinazio egokia. Kasu bakoitzari egokitutako balorazioa egingo da eta horren arabera bidezko neurriak hartuko dira. Larritasunaren arabera izan daitezke:

1. Bakartze eta higiegi neurriei dagokienez, gogor saiatu.
2. Kasuen bakartze lokalizatua.
3. Ikastalde eta mailak bakartzea.
4. Ikastetxea aldi baterako itsea.

Zer egin dezakegu agerraldi baten aurrean neurri egokiak hartzen ez badira? Ikastetxeko langileen ordezkariekin harremanetan jarri behar da (CCOOen ordezkaririk sindikala) parte hartu eta dagozkion neurriak exijitzeko. Egoera desagertzen ez bada, Lan Ikuskaritzaren aurrean salaketa bidea erabiltzea komeni da⁶

CCOOek ZERA EXIJITZEN DU:

1. Hezkuntza elkarteari babesteko agerraldi bat azaltzaren neurri egokiak har daitezela.
2. Segurtasun eta osasun komiteak (CSSL) funtsezkoak dira eta, horregatik, berriro ere, zera eskatzen dugu: komite horiek garatzea eta esparru horretan ahalmen eraginkorra izan dezatela.

BERROGEIALDIAK

Ikastetxeetan Covid-19 pandemiaren kasuak agertzearen aurrean jokatzeko Gidan honako hau jasotzen da: “Egiaztutako kasu batekiko azken harremanetik ondorengo 10 egunetan zehar berrogeialdia aginduko da; 10 egun horietan berrogeialdian daudenak bere osasuna zaindu behar dute eta, edozein sintoma bateragarri agertzean, AEEE bakoitzean ezarritakoaren arabera osasun sistemari hori jakinarazi. Geigarri moduan, zera aginduko da: berrogeialdia bukatu eta ondorengo 4 egunetan zehar, ager daitezkeen sintomak zaintzen jarraitu eta, agertuko balira, etxean bakartuta egon eta ezarritako eran ahal den azkarren komunikatzea”

⁵ Eskolara itzultzeari buruzko galde-erreguak, https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Preguntas_y_respuestas_sobre_la_vuelta_al_cole_11.09.20.pdf (9. orrialdea)

⁶ Lan Ikuskaritzaren aurrean salaketa egiteko era: http://www.mites.gob.es/its/ITSS/ITSS_Descargas/Atencion_ciudadano/Formularios/Inform

Zer egin?

Berrogeialdia ez betetzeak kutsatzeko arrisku oso handia dakarkio elkarteari. Zure lanpostuan berrogeialdia ez betetzera behartzen ba zaituzte edo betetzen ez direlako kasuak ikusiz gero, ikastetxearen langileen ordezkariari (CCOOen ordezkaria) jakinarazi behar diozu edo zure lurraldeko sindikatuarekin harremanetan jarri neurri egokiak zaintzea edo betetzea exijitu dezan.

CCOOek ZERA EXIJITZEN DU:

Agintariak hezkuntza elkartearen kideen artean berrogeialdiak zorrotz betetzea zaindu dezatela.

BAJAK

Bajei dagokienez, ondorengo kasuistikarekin aurki gaitzke:

1. Covid-19arekiko sintoma bateragarriak dituen ikaslea (edo PCR-ren emaitzaren zain).
2. Covid-19ak kutsatutako batekin harreman estua izanagatik ikasle konfinatua.
3. Covid-19ren kutsatze atalaseak gainditzeagatir jarduera akademikoa etetea.
4. Covid-19arekin sintoma bateragarriak dituen langilea. (PCRren emaitzarekin edo gabe)
5. Covid-19arekin sintoma bateragarriak dituen pertsonarekin harreman estua izandako langilea (PCR emaitzarekin edo gabe) eta jarraitu beharreko pertsonen taldean sartzeko zain dagoena.

Suposizio hauek, konfinatzeko osasun derrigorrezkotasuna eta/edo alarma egoeraren antzeko kontziliazioaren beharra eskatuko dute eta ondorengo irizpideez arituko da:

1go. suposizioa: Covid-19arekiko sintoma bateragarriak dituen ikaslea (edo PCR-ren emaitzaren zain). Berarekin bizi eta kasu positiboak diren gurasoak (edo PCRren emaitzaren zain) Covid-19 bakartze IT espezifikoa kokatu behar dira; bere Osasun Zerbitzuan edo Osasun Publikoak eta Hezkuntza Kontseilaritzak espezifikoki ezarrita daukaten mekanismoarenn bidez tramitatu beharko dute. Egoera honen iraupena lehen mailako arreta zentroak zehaztuko du.

2. suposizioa: Covid-19ak kutsatutako batekin harreman estua izanagatik ikasle konfinatua. Osasun Publikoak egindako segimenduaren zenbaterainokoak zehaztuko du kasu hau (Hezkuntza Kontseilaritzarekin batera ezarritako aginduekiko); baina, edozein kasutan, gerta daitekeena zera da: kontziliatzeko aldibaterako beharra, positiboa emanagatik bakartze IT espezifikoa proiektatzen den ala ez zehaztu arte. Hori. ezarritako irizpideen arabera beteko litzateke, hots, ordutegiaren egokitzapenarekin eta etxean lan eginda, ohiz burutzen denarekin bateragarri baldin bada.

3. suposizioa: Covid-19ren kutsatze atalaseak gainditzeagatir jarduera akademikoa etetea. Suposizio honek ez du lege-arautze espezifikorik izan; beraz, kontziliazioaren beharra emanaz gero, ordutegiaren egokitzapena eta etxeko lana baino ezin izango da aplikatu, ohiz burutzen denarekin bateragarri baldin bada.

4. eta 5. suposizioak: Covid-19arekin sintoma bateragarriak dituen langilea. (PCRren emaitzarekin edo gabe). Covid-19arekin sintoma bateragarriak dituen pertsonarekin harreman estua izandako langilea (PCR emaitzarekin edo gabe) eta jarraitu beharreko pertsonen taldean sartzeko zain dagoena.

Suposizio hauetan “Jarduera berriaz hasteko Plan”ean xedatu genuen protokoloa aplikatuko da.

1. Autobakartzea.
2. Osasun agintariei (Osasun Publikoa) berehala jakinaraztea, mediku-, prestazio- eta jarraipen eraginetarako.
3. Zuzendaritza arduradunari berehala jakinaraztea.
4. Pertsonaleko Sailari berehala jakinaraztea (honetatik “Covid-19aren koordinazioari eta prebentzio teknikoari txostena helaraziko zaie).
5. Sintomatologia susmagarri baten eraginez edo kasu positiboekin harremana izanagatik egindako PCR froga negatiboa izanez gero, laposturako itzulera automatikoa izango da, ez bada osasun agintariek bakartzea bere denbora luzapen osoan mantentzea gomendatzen dutelako. Edo, Covid-19aren sintomatologiak lan jarduera oztopatzen ez badu eta, beraz, IT bat eskatzen badu halabehar arruntengatik.
6. Sintomak garatu edo garatzen ez diren arabera eta Covid-19 bakartze IT espezifikoagatik bajaran egon arteko itxaronaldian, lan jareduera etxean burutuko da, deseskaladan zehar erabilitako antolaketa irizpideak baliatuz eta zuzendaritza arduradun bakoitzak jakinaraziko dituenak.

Lan jarduera dauden kasu guztietan, ordutegiaren kontrola piztuta egongo da.

Osasun agintariek erabaki ditzaketen neurri murriztaileen arabera, zein presentzialitate mailak jotzen diren beharrezkotzat aztertuko dugu.

ARRISKU PSIKOSOZIALAK

ISTAS7ren ikerketa baten arabera, zera frogatu da: konfinamenduak arrisku hauetarako esposizio maila kezkagarri baten handiagotzea eragin du. Badira bete-betean gugan eragiten duten faktoreak: garai honetan emozio egoera berezien mende egon gara, telelanak behartutako bakartzea, gaizki zehaztutako zereginak, zirkunstantziak gehitutako presentzia bikoitza... Azken finean, hautemandako exijentzien eta horiei aurre egiteko dauzkagun baliabideen arteko desoreka da kasu gehienetan jasaten ari garen estresaren sorburu nagusia.

Enpresetan arrisku psikosozialak saihesteko gakoa eta, berz, ikastetxeetan, lanaren antolamendu osasungarria da.

Komunikazio-sistema digitalen eta gizarte sareen erabilera bereizi gabeak sor ditzakeen arriskuak

Etapa honetako funtsezko gaia eta arriskua sor ditzakeena zera da: pandemiaren egoera dela eta, ikastetxeetan *on line*-ko plataformen erabilera, lan tresna gisa, ugaritu egin da, *WhatsApp* taldeak eta beste batzuk; honek, askotan, lan jarduera ez etetea ekarri du eta baita komunikazio modu bakarra bezala finkatu ere; honek langileengan mendekotasuna sortu du eta sistematikoki mugikorrari begiratu behar izatea. Hori guztia ekiditeko, antolamendu argia sortu behar da eta lan iraupenak zehaztu, informazioa jaso dela bermatzen duen beste komunikabide eraginkorragoa erabiltzeaz gainera.

Nola joka dezakegu ikastetxeetan aipatu arriskuak saihesteko?

Funtsezkoa da lan antolaketa osasungarriari zorrotz eustea, langileen beharrak kontuan hartzen dituen eta egoera kaltegarriak saihesten dituen. Arreta berezia nerrigbeko lanaldiei, ekipoetako entute aktiboari eta lan giroari non, pertsona guztiak erosoak eta baloratuak sentitzen diren. Ondoren, pendemiari aurre egiteko antolamendu neurri batzuk eskaintzen ditugu:

Covid-19aren aurrean antolaketa izaera duten neurriak

1. Langileen arteko harreman minimoa ziurtatzea.
2. Langileen lan bajak gehitu egin direla edo lanpostuan transmisio areriskua gehitzeJarduera gehitzearen aurrean jarraipen planak ezarri, parte hartze prozesu batean eta langileen legezko ordezkariarekin adostuta.
3. Egitekoak eta/edo telelana, beharrezkoa balitz, birbanatzeko aukerak aurreikusi.

Gogoratu behar da, telelana inoiz ez dela aplikatuko langilea bajaran badago.

Telelanari dagokionez, ISTAS-ek gida bat eman du argitara, *Behartuta, telelanari ekinez baina ahalik eta era osasungarrian*⁸, arrisku psikosozialen zein ergonomikoen ikuspegitik oso gomendagarria.

Alor honetako jardura egokien adibidea Valentzian aurkitzen dugu. Hemen, arrisku psikosozialen prebentzioa gatazketarako bitartekaritza planteatzen da⁹

AHOTSA ZAINTZA

Maskarak erabiltzeak entzutea oztopatzen du eta, horregatik, ikasleei (gelan) eta administrazioko eta zerbitzuetako langileei (gainerako instalazioetan) ahotsa goratu behar izaten diegu. Honek, arrisku bikoitza eragiten du. Alde batetik, aerosolen bidezko birusa ugaltzeko arriskua handitzen da eta, bestetik, ahotsa behartzen dugu, ahotsari loturiko patologien arriskuen mende gaudelarik. Hori saihesteko, gomendagarri da tonu bare eta ez altuegia edukitzea. Mikrofona eta amplifikagailuak ere erabil daitezke eta isiltasunaren kultura eta geletako entzute aktiboa sustatu eta baita klase magistralak eman eta talde osoari ozenki komunikatzea eskaten ez dituzten metodologia didaktikoak inplementatzea ere.

LH, Teknologia, Informatika Marrazketako... tailerren kasuan, gelan erabiltzeko mikrofonoak eta bozgorailuak eta gela-talde osoari ozenki hitz egiteko beharra ekiditeko metodologia didaktikoak baliatzea komenigarri da.

CCOOek ZERA EXIJITZEN DU:

Beharrezkotzat jotzen den kasuetan, enpresek neurri teknikoez hornitu beharko diskiete (mikrofonaok, amplifikagailuak, etab...) bere egoera pertsonalagatik eta/edo eskatzen duen hezkuntzako pertsonalari.

⁸

Behartuta, telelanari ekinez baina ahalik eta era osasungarrian. <https://www.ccoo.es//14b11f40e5c328dc3a212dc917fea16f000001.pdf>

⁹

Langileen Gatazken Ebazpenerako Unitateek autonomia erkidego bakoitzeko indarrean dagoen Bitartekaritza araudiarekin bat etorri behar dute, Justizia Ministerioan prestatu eta erregistratutako profesionalekin. Ikastetxeetan lan jazarpenaren aurrean, Conselleria d'Educació, Investigació, Cultura i Esport-eren mende dauden langileentzako prebentzio protokoloa. http://www.ceice.gva.es/documents/162909733/164864608/protocolo_acoso_laboral_es.pdf/1dde2796-

Hezkuntza alorreko langileentzat prebentzio-prestakuntza egitea, eraginkortasunez ahotsa modulatu eta erabiltzeko tresna eta teknikak ematen dituzten foniatrekin eta, horrela, erabilera okerragatik eman daitzkeen patologiai saihesteko.

PATOLOGIA DERMATOLOGIKOAK

Maskaren erabilera jarraitua aurpegiaren larruazalean patologiai sortzen ari da, horien artean, larruazalaren narritadura edo "akne mekanikoa", maskaren aknea edo *maskne* izenez ezagunagoa. Larruazalak okerrago "arnasten du" eta arnastu eta hitz egitean sortzen dugun lurrina lurrzalean gordetzen diren bakterietarako haztegia da. Gaitz hauek aurreikustekol hauek bezalako neurriak hartzea beharrezkoa da:

- Maiz larruazala hidratatzea.
- Makillajearen erabilera saihestu edo murriztea.
- Erabilera bakarreko maskara, lau orduero aldatzea beharrezkoa da. Higienikoen kasuan, hezea dagoen bakoitzean. Berrito erabiltzeko badira, maiz garbitu behar dira, gutxinez 60°C-ko programa batez, eta fabrikatzaileak zehazten dituen garbiketa kopuru gehiena errespetatuz.

10

PERTSONA KALTEBERAK

Covid-19aren aurrean, pertsona kalteberatzat ondorengo hauek jotzen dira: diabetikoak, gaixotasun kardiobaskularrak, arteria hipertentsioa barne, biriketako gaixotasun kronikoa, gibeletako gaixotasun kroniko larria, giltzurrunetako gutxiegitasun kronikoa, inimmunorritasuna, minbizia sendabide aktiboaren fasean, 60 urte baino gehiagokoak, gizentasun morbidoa (IMC>40) eta haurdunaldia. Osasun Ministerioaren ondorengo eranskinean kalteberatasuna kudeatzeko eta osasunekoak ez diren esparruetako arriskueterako jokaera gida bat proposatzen da:

V. ERANSKINA. KALTEBERATASUNA ETA SANITARIOAK EDO SOZIOSANITARIOAK EZ DIREN ESPARRUETAKO ARRISKUA KUDEATZEKO GIDA

Talde kalteberak	Patologia kontrolatua				Patologia deskonpentsatua				Komorbilitatea > 2 alderdi			
	AM1	AM2	AM3	AM4	AM1	AM2	AM3	AM4	AM1	AM2	AM3	AM4
Lanerako esposizioa	1	1	2	2	1	3	3	3	1	3	3	3
Gaixotasun kardiobaskularra/HTA	1	1	2	2	1	3	3	3	1	3	3	3
Diabetesa	1	1	2	2	1	3	3	3	1	3	3	3
Biriketako gaixotasun kronikoa	1	1	2	2	1	3	3	3	1	3	3	3
Gibeletako gaixotasun kroniko larria	1	1	2	2	1	3	3	3	1	3	3	3
Giltzurrunetako gutxiegitasun kronikoa	1	1	2	2	1	3	3	3	1	3	3	3
Inmunorritasuna	1	3	3	3	1	4	4	4	1	4	4	4
Minbizia sendabide aktiboaren fasean	1	4	4	4	1	4	4	4	1	4	4	4
60 urte baino gehiagokoak	Patologiari gabe				Patologia erantsia kontrolatua				Patologia deskonpentsatua			
	1	1	2	2	1	3	3	3	1	4	4	4
Gizentasun morbidoa (IMC>40)	Patologia erantsirik gabe											
	1	1	2	2	1	3	3	3	1	4	4	4
Haurdunaldia	Konplikaziorik eta komorbilateri gabe				Konplikazio eta komorbilitateekin							
	1	3	3	3	1	4	4	4				

AM1 (Arrisku maila 1): Arrisku komunitarioaren antzekoa, pertsona sintomatikoekin lan egitea.

AM2 (Arrisku maila 2): Sintomatikoak izan daitezkeenekin lan egitea, segurtasun distantziak mantenduz eta berarenganako eragin zuzenik gabe.

AM3 (Arrisku maila 3): Pertsona sintomatikoenganako asistentzia eta interbentzio zuzena, BBE egokiarekin eta segurtasun distantzia gorde gabe.

AM4 (Arrisku maila 4): Sanitarioak ez diren pertsonak, aerosolak sortzeko eragiketak burutu behar dituztenak COVID-19ak kutsatutakoei, RCP esaterako.

1	Ez du egokitzapenik eta lanpostu aldaketarik behar, ohizko lanpostuan jarraitzen du.
2	Lan jarduera jarraitu. Lana egin dezake pertsona sintomatikoekin, BBE egokiekin

ITURRIA: Osasun Ministerioa. SARS-COV-2aren esposizioaren aurrean, lan arrisku prebentzioaren zerbitzuetako jokabide prozedura

CCOOek ZERA EXIJITZEN DU:

Osasun Ministerioak kontuan hartu behar du ikasleekiko esposizio iraunaldia AM1 baino handiagoztat jo daitekeela, gehienbat hezkuntza bereziaren, haur hezkuntzan eta kutsatzeko arrisku handia dagoen egoera guztietan, instalazioen ezaugarriengatik, ikasleen kopuruagatik zein garatutako jarduera motagatik.

Langile kalteberen ebaluazioen kasuistika berrikustea beharrezkoa da. Lan arriskuen prebentzio handiagoa eta segurtasuna eta lan osasuna. Lan arriskuen prebentzio zerbitzuek, Osasun Ministerioak eta Erkidegoetako Osasun Kontseilaritzek kontzientzia hartu beharko dute eta Covid-19aren eraginez kalteberatzen hartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonen kasuen ahultasunaren aurrean horren arabera jokatu: 60 urte baino gehiagoko irakasleak aurretik patologia dituztenak, hala nola, hipertentsioa, diabetesa, gaixotasun kardiobascularrak, arnasketa-gaixotasun kronikoak eta minbizia.

HAURDUNALDIA ETA COVID-19

Kalteberatasun egoeren artean, haurdunaldia jasotzen da. Osasun Ministerioak, maiatzean, haurdunaldi a eta COVID-19ari buruzko dokumentu bat argitaratu zuen titulu honekin: *Konfinamendu egoeran dauden haurdunentzako informazioa eta arau orokorrak*¹⁰.

Geroztik, haurdunen arriskua eta esposizio mailari buruzko azteketak ugaritu dira eta gehienek ondorio honekin: emakumeek zein hurrek ez dute kalteberatasun maila bereziki alturik erakusten. Dena den, zenbait alderdi gogoraztea interesgarria da.

Martxoaren 6ko¹¹ 295/2009 Errege Dekretuak, haurdunaldian zehar eman daitekeen arriskuaren kasuan laguntza ekonomikoa areautzen du. Emakumea lanean ari denean eta haurdunaldian bere osasunari negatiboki eragiten dionean, haurdunaldiarengatik arriskuaren egoeran dago¹² Hezkuntza alorrean, haurdun dagoen emakume osasuntsu batek aurrean duen arriskua minimoa da, AM1 (arrisku maila 1), baina, AM2 motako egoera ematen den unean (segurtasun distantzia mantenduz, pertsona sintomatiko batekin lanean harremana izateko aukera) garrantzitsua da jakitea kalteberatasun taularen 3. maila aplikatuko litzatekela. Nola jokatu?

1. Prebentzio zerbitzuari lanpostuaren ebaluazioa eskatu.
2. Arriskuari aurre egiteko, enpresak lanpostua egokituko du.
3. Egokitzapena izan ezean, lan kontratua eten egiten da eta langileak, haurdunaldian, oinarri erregulatzaileraren %100koa jasotzeko eskubidea du

CCOOek ZERA EXIJITZEN DU:

Ebaluazio eta tramitazio prozesua gehiegi luzatzen ari da. Izan ere, kasu asko ematen ari dira eta prebentzio zerbitzua saturazio handia jasaten ari da. CCOOek zera eskatzen dugu: prebentzio zerbitzuak behar den pertsonalez horni daitezela, egoera horretan dauden emakumeei alde azkarren eta segurtasunez arreta emateko.

¹⁰ *Konfinamendu egoeran dauden haurdunentzako informazioa eta arau orokorrak.* <https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/>

[durante-el-embarazo/](#)

TENPERATURAK ETA AIREZTAPENA

Orain, tenperatura hotzak datozenean, honi buruzko hausnarketa egin behar da: konfort termikoa bere neurrian gutxitzea, hezkuntza elkartearen segurtasuna eta osasuna bermatzeko. Honi buruz, kontuan hartu beharreko bi dokumentu ditugu:

Lehenik, CSICen ikertzaile talde batek *Gelak aireztatze Gida*¹³ argitaratu du. Oso interesgarria ikastetxeetan birusa ugaltzearekiko.

Gainera, azaroaren 18an, Osasun Ministerioak *Aerosolen bidez, SARS-CoV-2ren transmisio arriskuaren Ebaluazioa. Prebentzio neurriak eta gomendioak*¹⁴ dokumentu teknikoa argitaratu zuen.

Bi testuok bat datoz, leku itxietan eta gaizki aireztatueta kutsatze arriskua handiagoaren garrantzia. Gero eta aditu gehiago dago prebentzio bide gisa aireztatzea aholkatzen dutenak baina, zer egin behar dugu tenperatura baxuak ditugunean? Egokiena, instalazioetako airearen kalitateari buruzko ikerketa burutzea da eta ikastetxe bakoitzerako berariazko neurriak diseinatzea da. CO² ren neurtzaileak erabiltzea aholkatzen da airearen egoera ikusi eta, beharrezkoa denean, aireztapena laguntzea elementu teknikoekin, aratzaileak, esaterako. Aholkularitza profesionalaren beharra azpimarratzea guztiz garrantzizkoa da eta neurriaren izaera osagarrian.

12

Ez dira ozonoko aparailuak, ionizagailuak eta ikasleen zein langileen osasunerako kaltegarri izan daitezkeen beste produktuak erabili behar. Ikasturte honetan berogarriak janzea komeni da, nahiz eta deserosoa izan, horrela guztion segurtasuna sendotzen badugu.

Kontuan hartu behar da honako neurriok berehalako jarduerarako direla baina, beharrezkoa da hurrengo ikasturterako jarduera planak diseinatzea, eskola azpiegiturak egokituz, hauen erabilera segurua, eraginkorra eta jasangarria izan dadin. Inbertsio hauen helburua segurtasuna eta geletako erosotasuna gehiagotzea izan behar du, CO²ren mailak, tenperaturak, etab... kontuan izanda.

AIREZTATZEAK KUTSATZE ARRISKUA ASKO GUTXITZEN DU: BIZITZAK SALBATZEKO, KONFORT TERMIKOARI UKO EGIN:

ZER EGIN?

1. Egoerak horretarako aukera ematen duenean, jarduera akademikoan kanpoan burutu.
2. Ratio baxuei buruzko aholkuak ez gaituztu, hauek esposizio arriskua gutxitzen baitute. (15 ikasle-20 gehienez)
3. Pertsonen arteko segurtasun distantziak errespetatu (1,8 metro)
4. Tenperatura baxuak daudenean, berotzen duten arropa erosoak eta tapaki txiki bat.
5. Edari beroak edo epelak banako teremoan, eta edatean segurtasuna eta babes protokoloak errespetatuz.
6. Komunikazio barea eta tonu baxua sustatu.
7. Ikastetxe bakoitzean, adituek esparruaren ezaugarriak, aireztatze bideak, ratioak, etab... ebaluatu.
8. Airearen kalitatea neurtzeko CO² ren neurtzaileak erabili.
9. Ahal denean, aireztatze naturala hoberena da.

¹³ Gelak aireztatzeko Gida. https://www.ciencia.gob.es/stfls/MICINN/Ministerio/FICHEROS/guia_para_ventilacion_en_aulas_csic.pdf

¹⁴ Aerosolen bidez, SARS-CoV-2ren transmisio arriskuaren Ebaluazioa. Prebentzio neurriak eta gomendioak. https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/COVID19_Aerosoles.pdf



es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/COVID19_Aerosoles.pdf

10. Aireztatze naturalarekin ez bada oinarrizko airearen kalitatea lortzen, airea atera eta arazteko sistemak erabil daitezke. Osasun Ministerioak gai honi buruzko dokumentu oso baliagarria argitaratu zuen: Eraikuntza eta lokaletan klimatizazio sistemak erabili eta mantentzeko gomendioak, SARSCoV-2ren ugaltzea saihesteko¹⁵

CCOOek ZERA EXIJITZEN DU:

1. Enpresek eta administrazioek protokolo egokiak burutu dezatela langileen legezko ordezkariarekin batera.
2. Gastuak eta beharrezko pertsonala bere gain hartuta, Enpresek eta administrazioek, ahal den azkarren, aireztatzearekin zerikusia duten segurtasun eta osasun beharretara ikastetxeak egokitzea.
3. Administrazioen, enpresen eta langileen ordezkarien artean, era koordinatuan, jokabide planak diseina daitezela, eskola azpiegiturak egokitzeko, hauen erabilera segurua, eraginkorra eta jasangarria izan dadin.
- 4.

MATERIALAK

MASKARAK

Maskararen erabilerari dagokionez, beharrezkoa da gogoraraztea, berriro ere, derrigorrez erabili behar dela ikastetxeetako instalazio guztietan. Osasun arau hau, aireztatzearekin batera (ordu bakoitzeko 15 minututan gutxienez), kutsatzearen prebentzio neurria da. Udararen etorrerak eta eguneroko normaltasunak bere erabileran lasaitzera eraman gintuen, lanaldia eteten den unetan barne (ogitartekoa, bazkaria, etab...) Dena den, osasun araudiak behartuta, erabiltzen jarraitu behar dugu.

Horrela ez bada inguruko gainerako pertsonak arriskutan jarri ez ezik, segurtasunik ezako giroa eta ondoeza sortzen du lankideen multzoan. Eta hau onartezina da. Horregatik, banakako eta taldekako prebentzio arauak zorrotasunez betezea beharrezkoa dela azpimarratu behar da, Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legearen 29. artikulua 2. atalaren arabera, hau betetzen ez bada, isuna baitago.

ONARRIZKO GOMENDIOAK

1. Ohartu zure maskarak EBak eta Espainiako Estatuaren osasun agintariak homologatu dituen artean daudala.
2. Erabili maskarak fabrikatzaileak zehaztutako iraupenerako. Erabili eta botatzeko maskarak, zehaztutako orduz gainera kaltegarri izan daiteke zure osasunerako (ahoaren, faringearen eta larruazalaren arazoak).
3. Kudeatu egoki zure maskarak botatzea. Arrisku biologikoak dituzte eta horrek tratamendu espezifikoa eta arduratuta eskatzen du.
4. Berrerabili daitezkeenak, fabrikatzaileak gomendutako garbiketa kopuru gehienekoa dute eta beti, gutxienez, 60°Cko tenperaturekin. Ezin dezakegu ahaztu, maskara hauek bakteriak eta birusak

¹⁵ Eraikuntza eta lokaletan klimatizazio sistemak erabili eta mantentzeko gomendioak, SARSCoV-2ren ugaltzea saihesteko: https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Recomendaciones_de_operacion_y_mantenimiento.pdf

5. Zenbait kasutan, ikastetxeek langileei FFP2 maskaraz hornitu behar die (enpresaren betebeharra delako) eta higienikoak, arrazoi ekonomikoengatik edo premiazkoengatik behar dituzten ikastetxeko guztiei.

CCOOek ZERA EXIJITZEN DU:

14

Enpresek eta irakaskuntza publikoaren kasuan Administrazioak FFP2 maskarak banatu ditzatela ondorengo kolektiboek:

1. Arreta goiztiarreko eta Hezkuntza Orientazio eta Psikopedagogiko ekipoei.
2. Haur Hezkuntzako pertsonalari.
3. Irakaskuntza artistikoetako pertsonalari (dantza, arte dramatikoa...)
4. Haize-instrumentutako irakasleei.
5. Heziketa Fisikoko irakasleei, eremu itxietan ikasleak markararik gabe ariketa fisikoa giten dutenean.
6. LHko tailerretako pertsonalari.
7. Hezkuntza bereziko ikastetxeetako pertsonalari.
8. Covid-19ak kutsatzeko arriskuan dagoen edozein langileri, kontaktua, tratua denbora eta/edo jardueragatik.

Gainera, zera erreibindikatzen dugu: homologazio prozesua eta ondorengo maskara gardenen hornidura arintzea, komunikazio hoberenean eta ikasleen inklusioan aurreratzeko eta, bereziki ondorengo kolektiboentzat:

1. Hipoakusia duten ikasleekin lan egiten duen pertsonalarentzat.
2. Hizkuntzetako pertsonalarentzat-

HIDROGELA

Hezkuntza enpresek eta ikastetxe publikoetako erantzule den Administrazioak, hidrogel alkoholikoaren erabilguneetako banaketa bermatu behar dute, instalazioen sarrera eta irteetan eta horren erabilera hezkuntza elkartearen segurtasuna eta osasuna gehitzen duenetan.

PANTAILAK

Maskaren ordeztailak, bere eraginkortasun ezagatik, ez erabiltzea aholkatzen da. Zenbait egoeratan

osagarri modura erabili behar da, ikasleek maskararik ez daramatenean eta kontaktua estua denean, esaterako: Haur Hekuntzak eta Hezkuntza Berezian. Halaber, haize-instrumentu bat jotzea eskatzen duen musikako klaseetan, tartea mantentzeko pantailak jarri beharko dira pertsonen artean (irakaslea eta ikaslearen artean). (Pantaila hauek nahiko zabalak izan beharko dute, pertsonen arteko distantzia errespetatzeko).

Ikasleen aniztasuna eta pantailaren deigarritasuna direla eta, egokiena begiak babesteko betaurrekoak erabiltzea izango litateke egokiena, lana erosotasun handiagoz burutzeari aukera ematen baitio eta ez dira ikasle horien arreta deitzeko inolako erakargaririk eta eustera eramaten dituenak.

Kasu hauetan, enpresak langileei zein ikasleei beharrezko material guztiaz hornitzeko derrigorrezkotasuna du.

BIBLIOGRAFIA

Ikastetxeetako osasun eta segurtasunaren kontuetan CCOOen proposamena. Deseskalada eta 2020-2021 ikasturtea.

<https://fe.ccoo.es/b45a4a831f285bb9a0e5e23b13027357000063.pdf>

Ikastetxeetan Covid-19 kasuen agertzearen aurrean jokatzeko Gida. 2020ko irailaren 24.

https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Guia_actuacion_centros_educativos

Eskolara itzultzeari buruzko galde-erreguak.

https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Preguntas_y_respuestas_sobre_la_vuelta_al_cole_11.09.20.pdf

SARS-CoV-2ra esposizioaren aurrean lan arriskuen prebentzio zerbitzuetarako jokabide prozedura.

https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Proteccion_Trabajadores_SARS-CoV-2.pdf

Lan Ikuskaritzaren aurren salaketa bat nola aurkeztu.

http://www.mites.gob.es/its/ITSS/ITSS_Descargas/Atencion_ciudadano/Formularios/Inform_DENUNCITSS_.pdf

Lan baldintzak, segurtasunik eza eta osasuna, Covid-19aren testuinguruan.

https://istas.net/sites/default/files/2020-07/InformeCOTS_01072020.pdf

Telelana behartura, baina ahalik eta modu osasungarrienean.

<https://www.ccoo.es//14b11f40e5c328dc3a212dc917fea16f000001.pdf>

Prebentzio protokola eta lan jazarpenaren aurrean jokabidea Conselleria d'Educació, Investigació, Cultura i Esport-en mende dauden ikastetxeetan.

http://www.ceice.gva.es/documents/162909733/164864608/protocolo_acoso_laboral_es.pdf/1dde2796-285f-4cee-ab7e-cc27e97b9f07

Hezkuntzaren Lurralde Zuzendaritzen Arretarako eta Interbentziorako Unitateak (AIU), zer dira?

<http://www.ceice.gva.es/es/web/inclusioeducativa/unitat-atencio-i-intervencio> http://www.dogv.gva.es/datos/2017/02/15/pdf/2017_1226.pdf

16

Valentziako ikastetxeetan bizikidetzaren planak burutzea arautzen duen araudia. Bertan, eskola jazarpenaren aurreko jokatze eta interbentziorako protokoloak ezartzen dira.

http://www.dogv.gva.es/datos/2014/08/01/pdf/2014_7282.pdf

Konfinamendu egoeran haurdunentzako informazioa eta arau orokorerak.

https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/COVID19_Pautas_mujeres_embarazadas.pdf

Gikasgelak aireztatze gida.

https://www.ciencia.gob.es/stfls/MICINN/Ministerio/FICHEROS/guia_para_ventilacion_en_aulas_csic.pdf

Aerosolen bidez, SARS-CoV-2a ugaltzeko arriskuaren ebaluazioa. Prebentzio neurriak eta gomendioak.

https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/COVID19_Aerosoles.pdf

Klimatizazio sistemak eta erainkuntza eta lokalak erabili eta mantentzeko gomendioak, SARS-CoV-2aren zabaltzea saihesteko.

https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Recomendaciones_de_operacion_y_mantenimiento.pdf



irakaskuntza